

noaua

**Ekainaren 11n, Irrien
Lagunen saioa frontoian**

**50 urterekin sasoi betean
da Udaregi Ikastola**



Gure Esku Dago taldea,

erronkari heltzeko prest

Aisialdia giro alai eta dibertigarrian euskaraz igarotzeko aukera



udajolas ²⁰¹⁸

Udajolaseko guraso bilera
ekainaren 14an (osteguna)
izango da **Sutegin**,
arratsaldeko **17.00etan**



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24H)

·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK



www.funerariagonzalez.es



FINKA ADMINISTRATZAILEA

AHOLKULARITZA ZERBITZUA


INMOBILIARIA

ASEGURUAK

943 573 693

Eusko Gudari 35, ORIO

PSU
serigrafia



serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL

Albiste iruditzen

Hitzarmenak, lau urterako berrituak

Ondoko irudian dituzue Aginagako Arrate, Santueneko Gure Elkarte eta Usurbilgo Gure Pakea jubilatuko elkarteetako ordezkariak Xabier Arregi alkaterekin batera, maiatzaren 31n Potxoenean egin zuten ekitaldian. Paperak sinatzen ari ziren unean atera genuen ondoko irudia.

Hain zuzen, Usurbilgo Udalak hiru jubilatuko elkarteekin 2014ko apirilaren sinatu zituzten lankidetzaren hitzarmenaren indarraldia epe amaierara heldu denez, beste lau urterako berritu dituzte. Diru-laguntza erregimena eta prekarioz laguntzeko lokalaren erabilpena arautzea dira elkarlanerako dokumentuok sinatzearen helburu nagusiak.

Hitzarmenetan, elkarteok jubilatuekin egiten duten lana nabarmentzen da; bai jubilatuko eta pentsiodunak biltzen, nahiz ekintzen bidez, bazkideen arteko elkar-kidetasuna bultzatzen egiten duten ahal-



Argazkian Usurbilgo Gure Pakea, Santueneko Gure Elkarte eta Aginagako Arrate jubilatuko elkarteetako ordezkariak eta Xabier Arregi alkatea.

egina. Dokumentok aurrez landu dira sinatzaileen artean.

Aho batez onartuak

Udalak hiru jubilatuko elkarteekin maiat-

zaren 31n sinatu zituen hitzarmenak aho batez onartu zituen udalbatzak, bi egun lehenago egin zuten osoko ohiko bilkuran. Sinatu eta bihamuneari jar-tzekoak ziren indarrean.

Laburrean

Errigoraren kontserbak, eskuragarri

Martxoan zehar, Nafarroa hegoaldean ekoiztako kontserbak eskatu zenituztenok adi. Ostiral honetara arteko (ekainak 8) epea duzue NOAUA!ra etorri eta kontserbak jasotzeko. Ordainketak une horretan egin beharko dituzue.

Jaietako zikiro janerako txartelak

Asteburitik aurrera salgai izango dituzue Bordatxo, Txiriboga eta Aitzaga tabernetan. 25 eurotan erosi ahalko dira, 15 eurotan langabetu eta gazteek. Ekainaren 30ean ospatuko da zikiro jana, larunbatetik.

Kalezar, oilasko biltzaileen bazkariko txartelak

Urtero moduan, Kalezarko jaien aurretik, ekainaren 15etik 21era eskuratu ahalko dituzue Kaffa kafetegian.

Ekainaren 23an ospatuko dute San Juanetako oilasko biltzaileen bazkaria 14:00etan.

noaUA

Kultur Elkarteak

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkarte@noaUA.eu ||| www.noaUA.eu
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

Publizitatea:

Beatriz Alda,

publizitatea@noaUA.eu

Diseinu berria:

Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaUA.eu:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Iñaki Irazusta, Jon

Galbete.

Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldia,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Luis Arnalde

Iragan-minarik ez

Nire bizitzan irakurri dudan libururik onena da zioen duela gutxi Bill Gatesek argitaratu berria den liburu batengatik: “ilustrazioaren defentsan. Arrazonamenduaren, zientziaren eta etorkizunaren alde”. Saio honen laburpena irakurtzeko aukera izan dut oporralditxo honetan; hain zuzen ere hamar egun pasa ditut Rin eta Mosela ibaien inguruko herri batzuk bisitatzen, besteak beste Wiesbaden, Estrasburgo, Kolonia...

Lan bikain hau Steven Pinkerrek idatzi du. Psikologoa, irakaslea eta idazlea da. Kanadako Montrealen jaio zen duela 63 urte; batzuek deitu diote “pentsamendu baikorraren apostolua”. Ez dira urte asko idatzi zuela “gure baitan daramagun aingerua” eta hor defendatzen duen tesia zera da: gizartearen historian bizi izan den une baketsuena dela oraingoa.

XVIII. mendean lurrikara batek ia guztiz desaginda utzi zuen Lisboa. Gertakizun onek sekulako debate filoso-

fikoa ireki zuen. Alde batetik ilustrazioko pentsalariak, hau da, aurrerapenaren fedea defendatzen zutenak eta bestetik gaizkia esplikatzeko saiatzeko zirenak Jainkoaren zigor gisa edo aztiren baten azio bezala. Kataklistimo haren aurrean esan zitekeen mundua hobeto zihola? Ilustraziokoek baiezkota zioten. Ia hiru mende geroago, eztabaida berak jarraitzen du: aldaketa klimatikoaren ondorioak ikusita, manten dezakegu etorkizun hobearen esperantza? Pinkerrek baietz dio. Gure esku dago. Ezkortasun guztien aurkako antidotoa zera da Pinkerren ustez: ilustrazioarekin lortu ditugun hiru balore oinarrikoenak: arrazonamendua, humanismoa eta askatasun indibiduala.

Lorpenen zerrenda oso luzea da. Hona hemen Pinkerrek aipatzen dituen batzuk:

Bizitza esperantza asko igo da mundu osoan, hirugarren mundua barne. Hamar urteko etiopiar baten bizitza itxaropena 44 urtekoa zen 1950ean; gaur 61ekoa. Estatistiken arabera gerrak desagertzen ari dira, nahiz eta Siriatik datozkigun berriak beldurgarriak izan

askotan. Egungo gatazka militarrek Nigeria eta Pakistan tarte horretan daude; gainerako herrietan bakea da nagusi.

Herio gaixotasun gogorrenak ia guztiz desagertu dira. Pinkerri gehien gustatzen zaion adibidea Wikipediak nafarri edo biruelari buruz ematen duen definizioa da: bi birusek eragindako gaixotasuna izan zen, “variola major eta variola minor”. “Izan zen” azpimarratzen du Pinkerrek. Txertoei esker desagertu da hogeigarren mendean 300 milioi pertsona hil zituen gaixotasuna.

Batzuek esango dute: kapitalismoak sekulako pobrezia eragin duela, ezta? Ez ba. Duela berrehun urte %90 guztizko pobrezian bizi zen. Gaur %10 dira oso txiroak. Hobekuntza hau azken 30 urteetan gertatu da. Beste adibide kuriosoa: duela urte batzuk (nik ezagutu dut hori eta ez naiz historia arrerkoia) familia bateko arropa garbitzen hamabi ordu ematen zituen gure edozein amak (nireak Gazteluko iturri handiko askan garbitzen zituen).

Gaur ordu eta erdi nahikoa da askotan, etxean gainera eta ez ibai ertzean eta hori gaur

sasoi hartan baino hamar aldiz arropa gehiago dugu-la ahaztu gabe, pobreek ere bai.

Giza eskubideak mundu osoa zabaltzen ari dira. Duela urte gutxi arte homosexualitatea delitu zen ia mundu osoan. Egun, ehun naziok onartu ditu talde honen eskubideak, ezkontzekoa barne askotan. Emakumea gizonaren menpe egon da mendeetan zehar, gizarte zibila militarren mende, guztiok nahi-ta-ez eliza katolikoaren aginduetara uztartuak... Nik duela 70 urte ezagutu nuen egoerarekin konparatuta mundu petral hau ia paradisu da.

Zeregin handia dugu oraindik mundu hau hobetzen: ustelkeria desagertzen, berdintasuna lortzen, denentzat pentsio duinak eskuratzen... Baina utz ditzagun histerismoak eta depresioa. Mundua ez da txartzan ari, hobetzen baizik eta asko. Inoiz ez dugu izan orain adinako aukerarik bakea, ongizatea eta osasuna lortzeko.

Iraganaren lilurarik ez, mesedez.

Maialen Unanue | Garazi Lizaso Manterola | Aritz Gorriti | **Luis Arnalde** | Imanol Ubeda | Idoia Torregarai | Luken Arkarazo

Hitzarmenen estatalizazioaren aurka

LAB sindikatuak deituta, 135 mobilizaziotik gora ziren maiatzaren 30ean zehar, Hego Euskal Herriko hainbat eta hainbat lantegi atarietan, hitzarmenen estatalizazioaren aurka eta Lan Harremanen eta Babes Sozialerako Euskal Esparruaren defentsan. Usurbilen ere bai. Zumartegi industriagunean, Igepak lantegi atarian.

“Estatalizazioa = prekariza-

zioa. Hemen lan egin, hemen erabaki. Bertako hitzarmenen alde!” aldarriarekin bat eginez, hainbat langileek lan uztea egin zuten. “Hitzarmenen estatalizazioak dakarren lan baldintzen prekarizazioa salatu eta hemen lan egiten badugu, gure lan-baldintzak hemen erabaki behar direla aldarrikatzea izan da mobilizazioen helburua”, adierazi dute LAB sindikatutik.



Osinalde industrialdean elkarretaratzea egin zuten maiatzaren 30ean.

Udala eta Elhuyarren arteko lankidetzaren hitzarmena

Elhuyarren normalizazioaren alde eta zientzia zein teknologia gizaratzen segitzeko lankidetzaren hitzarmena sinatu eta luzatu dute bi urterako, Elhuyar Fundazioak eta Usurbilgo Udalak. Elhuyarrek urteko plan bat osatu eta Udalarekin zenbait lankidetzaren bideratuko ditu, “izan itzulpengintzan, aholkularitzan edo bestelako zerbitzuen bidez. Usurbilgo Udalak 10.000 euroko diru-laguntza eskainiko dio”, Udaletik berri eman dutenez.



Elhuyarren egoitzan sinatu zuten lankidetzaren hitzarmena.

Aurtengoari begira, hitzarmen honen baitan, Harria Hitz ibilbidea irisgarria egiteko egitasmoa landuko dute. “Elhuyarrek ADI-Usurbil teknologia adimenduna garatzen jarraituko du, Harria Hitz ibilbidea irisgarria bihurtzeko helburuz. Modu horretan, edozein mailako ikusmen urritasuna edota ezgaitasun kognitibo edo intelektuala duten bisitarien aukera izango dute ibilbide azalpen guztiak eta ibilbidea jarraitze-

HITZARMENAREN BAITAN

Elhuyarrek ADI-Usurbil teknologia adimenduna garatzen jarraituko du, Harria Hitz ibilbidea irisgarria bihurtzeko

ko. Horretarako, besteak beste, bisitaria ibilbidean zehar gidatzeko GPS-rako track bat sortuko du Elhuyarrek. Bi erakundeak lanean ari dira egitasmo

hori epe motzean gauzagarri egiteko”, Udaletik berri eman dutenez.

Ondoko irudian dituzue elkarlanaren aldeko konpromisoa berretsi duten aipatu erakunde eta fundazioko ordezkariak; Xabier Arregi Usurbilgo alkatea, CIC NanoGuneko zuzendaria eta Elhuyarreko zuzendari nagusi Leire Cancio eta Jose M. Pitarke de La Torre Elhuyar Fundazioko lehen-dakaria.

Belaunaldi arteko lanketarekin pozik

Sarritan errepikatzen ez den argazkia duzue ondokoa, Ziortza G.E.-k Artzabalen ateratakoa. Belaunaldi arteko lanketa bideratu du aisialdiko gazte taldeak Gure Pakea jubilatuko elkarterekin. “Begera zer ondo pasa dugun urtean zehar elkarrekin! Hemen dugu honen guztiaren emaitza. Saio ezberdinak izan ditugu elkar hobeto ezagutzeko eta asko ikasi dugu; nolakoa zen geure aitona-amonen bizitza geure adina zutela, zertan jolasten zuten eta beraien eskolak nahiz bizitza nolakoak ziren.

Mila esker Gure Pakea elkarteari hain harrera ona egitea-



Ziortzakoak Artzabalen, Gure Pakea jubilatuko elkarterekin batera.

gatik eta etxean bezala sentiarazteagatik. Onenak zarete! Beste bat arte! Ziortza Gazte Elkartereko LH5-6 ko gazte eta

begiraleak”, adierazi dute Ziortzakoek sare sozialen bidez zabalduzako mezuan. Iru-dia: Ziortza G.E.

Aurrematrikulazio garaia Lanbide Heziketan

Datozen bi asteotan bideratu ahalgo dira inskripzioak, bai Zubietan kokatua dagoen Lanbide Eskolan, baita Atalluko Oinarritzko Lanbide Heziketa udal institutuan ere. Azken honetan gainera, estreinakoz, aurrez hitzordua eskatu eta bertara joanda edo ekainaren 1etik aurrera martxan dagoen web orriaren bidez bideratu ahalgo da izen ematea. Segidan dituzue xehetasunak:

Lanbide Heziketa:

■ Epea: ekainak 4-15 (biak barne).

■ Ikasketa eskaintza: elektrozitate-elektronika, fabrikazio mekanikoa, administrazioa, energia eta ura.

■ Informazio gehiago: lhusurbil.eus / Edate bidea, 9 (Zubieta) 943 36 46 00 eskola@lhusurbil.eus

■ Jendaurreko ordutegia: astelehenetik ostiralera 9:00-14:00 artean, astelehenetik ostegunera 16:00-18:00 artean.

Oinarritzko Lanbide Heziketa:

■ Epea: ekainak 4-15 (bi egunak barne).

■ Ikasketa eskaintza: sukaldaritza eta jatetxea; ile-apainketa eta estetika.

■ Nori zuzendua: 15-17 urte arteko gazteak, DBH graduatua ez dutenentzat.

■ Xehetasun gehiago: Oinarritzko Lanbide Heziketako titulua (lan munduratzeko errazten dien profesionaltasun-ziurtagiria) eta DBHko graduatua lortzeko aukera, baita erdi mailako zikloetara sarbide zuzena ere.

■ Izen ematea (doan): Atalluko egoitzan (aurrez hitzordua eskatuta) edo on-line bidez olh.usurbil.eus web orri berrian.

■ Informazio gehiago:

olh.usurbil.eus

Zanpiura 3, Atallu

943 36 04 65 / lhi@usurbil.eus

Ekainaren 16ko herri omenaldian, Joxan Artze bizitzeko deia

Urte hasieran zendu zen Joxan Artzeri ekainaren 16an egingo zaion herri omenaldia aurkeztu zuten maiatzaren 31n Potxoenan, ekimen honen antolaketan lan betean diren hainbat usurbildarrek. Auzolanean, herritar, eragile eta Udalaren eskutik, “Joxan Artze guregan” dago eta hala izango dugu astebeite barri, omenaldi eguna iragartzeko Jose Luis Zumeta sortzaile usurbildarrak landutako kartelak dioen moduan.

Ekainaren 16an, “Joxan Artzerekin elkartu nahi dugu berri ere. Bere mundu handia ezagutu, irudikatu, oroitu, sentitu, partekatu eta bizi nahi dugu”. Datorren herri omenaldian, Artzeren mundua, “unibertso aberats eta zabala” arakatu nahi dutela nabarmentzen dute. Aitortzen zutenenez, zaila izango da ekainaren 16an Artzeren ondare guztia jaso eta kaleratzea, “gutako bakoitzak Artze geure erara biziko baitugu”. Horretara animatzen dute ordea. “Norberak ezagutu, irudikatu, oroitu, sentitu, partekatu, norberak bizi dezala Artze nahi duen eran. Sentimendu horien guztien topagune izan daitezela Usurbilgo kaleak. Irudikatze kolektiboaren lekuko izan daitezela”.

Yolanda Arrieta:

“Gurekin egongo da, guregan egongo da”

Aurkezpenean zehar hitza hartu zuen herritarretako bat, Yolanda Arrieta idazlea izan zen. Herri omenaldi hau egitea ideia ederra dela iruditzen zaio, “joandako jendearekin egon eta heriotzari bizitzatik begiratzeko modu bat da”.

Herri omenaldi egun honen



Herri omenaldian, Joxan Artzeren “unibertso aberats eta zabala” arakatuko dute.

YOLANDA ARRIETA

“Egun horretan

Joxan Artzeren hitzak guztion artean sentituz, imaginatuz, partekatuz, biziz, hitzak berpiztu egingo ditugu eta hitz horiek idatzi zituen pertsona ere berpiztu egingo dugu”

bidez, Joxan Artzeren hitzak eta egilea bera berpiztuko dugula nabarmentzen zuen. “Egun horretan egingo duguna da Joxan Artzeren hitzak guztion artean sentituz, imaginatuz, partekatuz, biziz, hitzak berpiztu egingo ditugu eta hitz horiek idatzi zituen pertsona ere berpiztu egingo dugu. Gurekin egongo da, guregan egongo da, hitzak ez direlako inoiz hiltzen, eta hitzekin batera, hitzak esatean, idazlea,

pertsona bera ere ez delako inoiz hiltzen. Bizirik dago, guregan dago”, zioen Arrietak.

Jendea hitza bizitzera, “Joxan Artze gurekin guregan berriro bizitzera” deitu du.

Gonbita baita gainerako kideen aldetik ere, bai usurbildarrei, baita gure artera etorri nahi dutenei, ekainaren 16an “denon artean Joxan oroitu eta guregan sentitzera”.

“Auzolan ederra izan da”

Herri omenaldi egun honen antolaketa lanetan parte hartu duten guztiak eskertu zituzten. “Auzolan ederra izan da eta emaitza ere halakoa izatea espero eta nahi dugu”. Tartean, zenbait izen nabarmendu eta emandako laguntzagatik eskertu dituzte; Carmen Esteban alargunaren eta Artzeren sendia, eta Joxe Luis Zumeta. Margolari usurbildarrak Artzerekin zuen harremanaren isla den kartela landu du.

Kartelarekin batera, josi duten egitaraua aurkeztu dute. “Txalaparta, poesia, dantza,



kantua eta musika uztartu nahi izan ditugu. Artzeren izana eta mamia, bere eraldaketa eta barne bizitzaren isla hain zuzen ere”.

“Joxan Artze guregan”, egitaraua

Ekainak 13, asteazkena

■ 18:00 Joxan Artze ezagutuz Potxoenea kultur etxean.

“Joxan Artze, espirituz ere bai” hitzaldia, Andoni Salameroren eskutik. Izanak elikatzen gaituen bezala, izanarekin batuz gertatzen zen Joxan Artzeren elkartzea, gizakiekin, izakiekin, eta baita berak deitzen zuen irazale edo Sortzailearekin, hau da, Jainkoarekin. Hori horren ondo eta egoki bizitzen zuen olerkariaren inguruko testigantza eman nahi dugu hitzaldi honen bidez, izan ere, ez baita ezer isildu eta ukatzekoa, berau horren ongi eta hezurmamitik bizi zuenean. Joxanen irudi bat baztertu baino, aztertea eta plazaratzea da gure nahia. Zintzotasun eta zuzentasun horri jarraiki, olerkari eta ekintzaile handi honek bere bizian erakutsitako alderdi guztion, espirituala barne, albiste eman nahi dugu, zinez eta taxuz gure herritar hau egiazki ezagutzeko”.

Ekainak 16, larunbata

■ Egunean zehar:

-Joxan Artze irudikatuz, Sute-giko erakustaretoan. “Txoria txori” poema irakurrita, haurrek akuarelaz sortu dituzten marrazkiak ikusgai jarriko dira erakustaretoan.



Ekainaren 16an larunbata, Harria hitz bisita gidatua osatzeko aukera izango da. 10:30ean abiatuko dira, frontoitik.

ARTZE EZAGUTUZ

**Andoni Salamerok
“Joxan Artze, espirituz
ere bai” izeneko
hitzaldia eskainiko du
ekainaren 13an
asteazkena, 18:00etan
Potxoenean**

-Joxan Artzeri idatziz egunean bertan, erregistro liburua egongo da, Joxan Artzeri zerbait idatzi nahi dionarentzat. Aldez aurretik, Potxoenea kultur etxera etorrita ere idatz daiteke bertan. Tel: 943 371 999.

■ 10:30 “Harria Hitz” Bisita Gidatua frontoitik abiatuta. “Harria hitz” itzulia eginez,

Usurbilgo herrigunean dauden artelanak bisitatuko dira. Ibilaldi honek argi erakusten du Usurbilek euskal sorkuntzan jokatu duen papera. Usurbil, euskal tradizioa eta modernitatea ederki uztartu dituen herria da, baita euskal sorkuntzarekin konprometitutako herria ere. Usurbilen inon baino hobe islatzen da 60ko hamarkadan Euskal Herrian gertatu zen kultur eztanda. Eta inon baino hobe islatzen da 60ko hamarkadako kultur eztearen ondorena. Ibilbide hau, herri gunean ikusi daitezkeen zenbait elementuren artean egingo da eta elementu horien bidez, Usurbilen euskal kultura

garaikidea den susperraldian jokatutako papera ezagutzeko helburua eta aukera izango dugu”. Izena emateko: 688 818 017 edo info@kultour.pro

■ 12:00 Joxan Artze oroitzuz Mikel Laboa plazan. Txalaparta, poesia, dantza, kantua eta musika lagun ditugula oroituko dugu Joxan Artze.

■ 17:00 Joxan Artze sentituz Olanoneko anfiteatroan. Haurrek marrazkiak egingo dituzte txalaparta entzunez sentitzen dutenarekin. Ondoren, ipuin kontaketa laburra izango da.

■ 18:30 Joxan Artze partekatuz Dema plazan. Joxan Artzeren lanaren aitortza egingo da, poesia eta txalaparta uztartuz. Bertan, Joxanekiko sentimenduren bat adierazi nahi duten guztiek parte hartzeko aukera izango dute, txalaparta joz edo haren poema bat irakurritz. (Aurrez izena eman nahi duenak: 943 360 692 edo kultura@usurbil.eus)

■ 22:30 Joxan Artze biziz frontoian. Joxan Artzeren lanean oinarritutako ikuskizuna gertutik biziko dugu: dantza, txalaparta, poesia, musika, bertsoak...

Antolatzaileak: herritar, eragile eta Usurbilgo Udalaren arteko elkarlanean.

Harria Hitz bisita gidatuak

Usurbilgo kultur ondarea ezagutzeko aukera ederra eskaintzen dute Harria Hitz bisita gidatuak. Ekainaren 2rako iragarria zegoen hilabete honetako lehenengo saioa, hitzordu berriak iragarri dira asteotarako:

Ekainak 8, ostirala

■ 10:00 Frontoitik abiatuta. Iraupena 3’5 ordu.

■ Ondoren, TxTxTx Txokoal-

deko Txalaparta Txokoa eta Zumeta estudioa ezagutzeko aukera. Izen ematea ekainaren 6ra arte.

Ekainak 16, larunbata

■ 10:30 Joxan Artzeren aldeko herri omenaldi eguna hasteko, bisita gidatua frontoitik herrian barrena. Izena ematea, ekainaren 14ra arte.

■ Informazio gehiago eta erreserbak: 688 818 017 edo info@

kultour.pro
Antolatzailea: Udala.

Mintzalagunek antolaturiko irteera

Etumeta AEK euskaltegiak, NOAA! K.E.-k eta Usurbilgo Udalak sustaturiko Mintzalagun egitasmoaren testuinguruan txangoa antolatu da Txokoaldeko tren geltoki zaharrera. “Oreka TX-ko kideek Txalaparta Txokoa erakutsiko digute eta

txalaparta jotzeko aukera izango dugu!”, iragarri dute.

Ekainaren 17an igandea, Goizeko 09:30ean finkatu da abiatzeko hitzordua Mikel Laboa plazatik. 11:00etan bisita hasteko hitzordua, Txokoaldeko Txalaparta Txokoan bertan Irteeran parte hartu asmo dutenei, aurrez, bideotatik izen ematea eskatzen zaie: 607 609 379 / 943 360 321 / usurbil@aek.eus

Alkateak Eusko Legebiltzarrean aurkeztu du “Usurbil 0.0” eredu

Eusko Legebiltzarreko Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Batzordean, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako birziklatzearen egoera hobetzera zuzenduriko neurriak aztertze-ko maiatzaren 30erako iragarritako ponentziaren baitan, hiru agerraldi zeuden aurreikusitakoak; Zero Zabor Araba mugimenduko ordezkariarena; Rezero, Fundació Catalana per a la Prevenció de Residus i el Consum Responsableko zuzendariarena; eta Usurbilgo alkate Xabier Arregirena.

Alkatea, “Usurbil 0.0” eredu aurkezten izan zen Gas-teizko parlamentuan. Hainbat eskaera zuzendu zizkien aipatu batzordeko kideei. EAE-k Hondakinen Lege propioa lantzea ezinbestekotzat jotzen du, lurralde arteko hondakinen po-



EAE-k Hondakinen Lege propioa lantzea ezinbestekotzat jo zuen alkateak.

litiken koordinazioaren ardura Eusko Jaurlaritzari dagokiola gogorarazita. Birziklatze-tasak aurkezteko eredu bateratua lantzea galdegin zuen.

Ontzi arinen gaineko araudia aldatu eta hondakinen tratamendu kosteak fiskalitate berdearen arabera ezartzea ere

bai. Baita “erabilera bakarreko produktuak mugatzeko eta birziklagarriak ez diren produktuak (pardelak, artilea, kale-garbiketako errefusa, plastikoa nahasketak...) birziklagarri izan daitezen ikerketa lerroak lantzearen beharra nabarmendu du”.

Erraustegirako goi-tentsioko linea baimendua

Proiektuaren aurkako 300 sinadura baino gehiago bildu arren, Lasarte-Oriako Udalak erraustegirako goi-tentsioko linea baimendu duela berri eman du Eguzki talde ekologistak. “Alkateak sinatutako Dekretu baten bidez 132 kV goi-tentsioko obra lizentzia ematen zaio GHK-ri. Askoz zorrotzago izan zitekeen gure ume, heldu eta adinekoen osasunaren, lur, landaredi eta faunaren errespetuan eta defentsan”.

EITB-rekin bildu dira

10.000 sinadurekin, telebista publikoak erraustegiari buruzko eztabaida teknikoa ematea eskatzen zuten. Egunotan zabaldu dutenez, gai honi buruzko eskaera helarazteko ETB-ren zuzendari Edu Barinagarekin bildu dira Errausketaren Aurkako Mugimenduko kideak.

Nazioartean, erraustegien aurkako mugimenduak bizirik

Zubietako erraustegiaren aurka soilik ez, nazioartean bizirik dira tokian tokiko erraustegi ezberdinen aurkako herri mugimenduen borroakak.

Aurrez 165 herritarrek aurkezturiko salaketaren harira, urte hasieran Vaux-le-Pénilgo (Paris, Frantzia) erraustegiaren arduradunak zigortu zituen Parisko auzitegi batek, legez baimendutakoa baino 2.200 aldiz dioxina gehiago isurtzeagatik

eta honenbestez, hainbat herritar arriskuan jarri eta desegokitzat jotzen zen instalakuntza eraikitzea baimentzeagatik. Inguruan bizi ziren 165 herritarrek aurkezturiko salaketaren eta 15 urteko borrokaren harira heldu da epaia.

Berriki, Florentziako tokiko agintariek eraiki nahi zuten erraustegiaren aurka agertu da Italiako Estatu Kontseilua. Ez du baimendu planta hau erai-

kitzea eta honenbestez, 15 urtez proiektu haren aurka eta alternatibak martxan jartzearen alde borrokatu diren herritarrei arrazoia eman die.

Egunotan bestalde, Gloucesterren (Ingalaterra) eraikitzen ari diren erraustegiaren aurka gose grebari ekin dio bi haur dituen guraso batek, aipatu hiriko eskualde-gobernuaren egoitza atarian. Eskakizun argi batekin abiatu zuen baraualdia

maiatzaren 29an. Erraustegia geratzea nahi du eta proiektuaren kontratua erakustea galdegin. Zentzugabetzat jotzen du proiektu honetan dirua xahutzea eta seme-alaben osasuna, etorkizuna babestu nahi ditu. Hondakinak errausteak dakartzan arriskuez ere ohartarazi nahi du. Inguru hartan mugimendu bizia dute eraikitzen ari zaizkien errauste plantaren aurka.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

Hondakinen kudeaketa hobetzeko toki-erakundeekin elkarlanean

Hondakinen kudeaketa-
ren gaiarekiko ardura Udalak biltzen hasia da. “Hobeki”, gai honetan aurrerapausoak emateko Euskal Herriko toki-erakundeekin elkar-
te sortu da. Dagoeneko, Hernani, Larrabetzu, Donemiliaga eta Leintz Gatzaga kide dituen bilgunearekin bat egitea erabaki du Usurbilgo Udalak, maiatzaren 29ko osoko bilkuran udalbatzak gehiengo osoz (EHBildu alde, eta EAJ zein PSE aurka) onartu zuen mozioaren bidez.

EHBilduk azken osoko bilkura eramandako gai honi lotutako mozioak Hobeki Elkartearen printzipioekin bat egin nahi du, modu praktikoan; “printzipio horien arabera aritzea, koherentziaz eta jarrera aktiboz, hondakinen kudeaketaren arloan”.

Erraustegia eta atez atekoa hizpide

Oposizioko PSE eta EAJ-ren udal ordezkariak aurka agertu ziren. EAJ-ren bozeramaile Josune Urkolak halako elkarte baten beharrik ez zegoela zioen “eta kontra bozkatuko dugu” iragarri zuten. Baita PSE-ko udal ordezkariak ere.

Mozioak printzipio batzuk aldarrikatzen dituela, baina errealitateak bestelakorik uzten duela agerian zioten EAJ-tik. Esaterako, elkarte irekia izan nahi duela, baina momentuz elkarte kide gehienak EHBildu agintean duten udaletxeak di-



Hobeki toki-erakundeekin elkartearekin bat egin du Usurbilgo Udalak.

rela zioen Urkolak. Mozioak herritarren parte hartzea sustatzea aipatzen du, baina EAJ-ren esanetan Hernanin atez atekoaren inguruan galdeketa egiteko hainbat herritarrek eginiko eskaera ukatua izan dela zioen.

Adierazpenekin, hondakinak bildu eta tratatzeko ereduen gaian murgildu ziren udal ordezkariak. EAJ-k edukiontzien sistema defendatu zuen, atez ateko bilketa baino jasangarriagoa baita jeltzaleen esanetan. Edukiontzien sistema duten herrietako gaikako bilketak “emaitza hobekak izaten ari dira urtez urte” zioen. PSE-k hondakinak erraustuz sortuko den energiak ekarriko duen aurrezpena defendatu zuen.

Esperientziak partekatuzko

Adierazpenon aurrean, udal gobernu taldea harrituta ageritzen, mozio honek kontu guztiak aipatzen ez dituela adierazita. Udal gobernu taldetik, elkarte honen eginkizuna hon-

dakinen bilketa modutik haratago doala zioten. Esperientziak partekatuzko bilgune ireki bat dela nabarmendu zuten. Erraustegiaren eta atez ateko bilketaren inguruan oposiziotik esandakoak gezurtatu zituzten. “Gezur hutsa da” zioen alkateak, erraustegia energia sortzaile izan daitekeenik. “Usurbilgo erreusarekin elikatu behar balitz, ez litzateke eraginkorra” ez errentagarria, ezta beharrezkoa ere.

Atez atekoaren inguruan esandakoen harira, udal gobernu taldetik zioten galdeketa sarritan eskatu eta ez direla egiten utzi, esaterako Usurbilgo Udalak erraustegiaz galdezko eginiko eskaera gogora ekarri zuen EHBilduk. Galdeztzen zuten ia onargarria ote den atez atekotik edukiontzien sistemara igarotzea defendatzea, halakoetan gaikako bilketa erdira jaisten dela ikusita. EHBildutik argi utzi zuten, “ez da onargarria”.

Hobeki elkartearen printzipioak

1-Osasunaren eta ingurumeneren zaintza lehenestea hondakinen kudeaketan.

2-Herritarrok eta herri-erakundeok elkarren eskutik joan behar dugu. Hondakinak ondo sailkatzea guztion betebeharra da, eta ondo sailkatutakoak ondo tratatzea herri-erakundeon betebeharra.

3-Herritarrak ahalduntzea. Horretarako, herritarrak prozesuko partaide aktibo bilakatzeko, hondakinen kudeaketaren prozesu osoa argi azaldu eta erabakietan parte hartzeko aukera ematea.

4-Kudeaketak hondakinen zikloa bere osotasunean hartu behar du, ikuspegi zirkularra landuz.

5-Edozein tratamenduren abiapuntutzat dugu murriztea.

6-Bilketak eraginkorra izan behar du. Beharrezko neurri zuzentzaileak aplikatu behar dira.

7-Murriztu, berrerabili eta birziklatu, hurrenkera horretan.

8-Europako jarraibideekin agindutakoarekin bat, balorizazio materiala hobesten da, balorizazio energetikoaren kaltetan. Ezezkoa erraustegirik eraikitzeari, eta zabortegi konbentzional kutsakorrei.

9-Azpiegitura lokalak lehenestea, tokiko garapena indartu edota garraioa murrizteko.

10-Hondakinen sailkatze gero eta finago eta xeheagoa egitea beharrezkoa da, “eta material egokiak erabiliz, horiek berrerabiltzeko eta birziklatzeko teknologietan inbertitu beharra dago”.

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus



Kima

MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97



Ekintzaileei zuzenduriko bi diru-laguntza deialdi

Proiektu bat eskuartean izan edo garatu nahi duen ekintzaileari lagungarria suerta dakioken albiste segidan. Usurbilgo Udalak ondoko bi diru-laguntza deialdiok plazaratu ditu. Bat, hutsik dauden lokal komertzialak biziberritzeko, bestea urtebetez Kabieneen bekadun gisa lanean aritzeko. Xehetasunak segidan dituzue:

Lokal komertzial hutsak biziberritzeko udal diru-laguntza deialdia

Jarduera ekonomiko berri bat martxan jarri nahi duen ekintzailearentzat interesgarria izango da ondoko albiste. Usurbilen hutsik dauden merkataritza lokalak biziberritzea sustatu nahi du Udalak. Horretarako, lokal hauek erabiltzeko hautua egiten duten ekintzaileentzat, alokairu gastuei aurre egiteko diru-laguntza deialdia egin du Udalak:

- Lehen tasuna izango dute: herritarrei eskaintzen ez zaizkien zerbitzuekin lotutako proiektuek, baita ixtera doazen edo itxi berriak diren jardueren jarraipenekoak diren proiektuek ere.
- Ekintzaile eta enpresa proiektu-



Usurbilen hutsik dauden merkataritza lokalak biziberritzea sustatu nahi du Udalak.

LOKAL HUTSAK

“Hutsik dauden lokalak erabiltzeko hautua egiten duten ekintzaileei diruz lagunduko die Udalak”

tuaren betebeharrak: lokalik jabetzan ez izatea, hutsik da goen Usurbilgo merkataritza lokal bat alokairuan hartzea, gehienez 5 langile izatea...

■ Jarduera mota: txikikazko herri merkataritzako jarduerak, pertsonaiei zuzendutako zerbitzuak, biziberritze ekonomiko eta sozialerako lagungarria izan daitekeen jarduera

komertziala.

■ Lokalaren alokairua: 12 hilabeteko gutxieneko iraupeneko kontratua; gehienezko prezioa, metro karratuko 10 euro.

■ Diru-laguntzen zenbatekoa: lehen urtean alokairu gastuaren %40a (gehienez ere 300 euro) eta bigarren urtean gastuaren %30a (gehienez 200 euro).

■ Eskararak: udal erregistroan aurkeztu, irailaren 30a baino lehen.

Informazio gehiago:

Maiatzaren 25eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
usurbil.eus
943 371 951.

Hasiz Hazi beka deialdia

Kabiene Elkartearen elkarlan-gunea urtebetez baliatzeko aukera eskainiko dio ekintzaileari Kabienek berak eta Udalak abiatutako beka deialdi honek. “Elkarlan gune hau, lanerako espazio bat ez ezik, baliabideak eta esperientziak partekatze leku bat izango da. Bekadunek bertan lanean ari diren kideen esperientziatik ikasi ahal izango dute eta harreman-sare indartuago batekin ekin ahal izango diote lanari. Beterri-Buruntza Ekinean,

enpresak sortzen laguntzeko aholkularitza zerbitzuaz baliatu ahal izango dira”.

■ Nori zuzendua: 2018an enpresa proiektu bat duen ekintzaileari.

■ Eskaintzen dena: Kabiene elkartearen elkarlan-gunearen urtebeteko erabilera, diruz ordaindua.

■ Bekaren gehienezko zenbatekoa: 1.089 euro (beti ere ekintzaileak 12 hilabeteko erabilera izaten badu Kabieneen).

■ Lehiakideek bete beharreko

baldintzak: Beterri-Buruntzako udalerriren batean errolatua egotea, adinez nagusia izatea, Usurbilen enpresa bat sortzeko ekimena dutenak izatea,...

■ Dokumentazioa eskuratu eta eskabideen aurkezpena: Usurbilgo udal errejistroan.

■ Epea: irailaren 30era arte.

■ Informazio gehiago: Maiatzaren 28ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.
usurbil.eus
943 371 951.

Zumartekoen ikasturte amaiera abiatzear

Urte garai honetan antolatutako ikasleen kontzertuekin agurtuko du Zumarte Musika Eskolak, ezohikoa izan duten 2017-18 ikasturtea. Ezohikoa, hiru hamarkadetan egoitza nagusia izan dutena berritzeko, herriko beste lokal batzuetara lekuz aldatu baitira.

Lokal hauetako baten ondoan finkatu dute ikasturte amaierako lehen hitzordua; ekainaren 15ean, 19:30etan Santueneko frontoian, Zumarteko pop-rock, folk eta gitarra taldearen emanaldia.

Saizar, Lurrekolore egitasmoan

Sagardotegietako intxaur oskolek berrerabilpen berri bat dute. Tinte natural gisa kirol jantziarako baliatzen hasi dira zenbait enpresa, orain arte baliatzen zizutten hainbat produktu kimiko murriztuz. “Lurrekolore” izeneko egitasmo honetan parte hartzen ari dira Gipuzkoako Foru Aldundiko ingurumen saila, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarte, Ternua eta Archroma enpresak, edota Aburuza, Iparragirre, Petritegi eta Usurbilgo Saizar sagardotegiak.

SagardoHop Iruin sagardotegian

Larunbat arratsaldean (ekainak 9) 19:00etan hasita Zubieta Iruin Sagardotegian. Bamboo Dance, Ossian, Mde Click, Elfomega + Nöiz eta W. Chef, Sho-Hai-ren eskutik, latindar hip hop doinuez eta sagardotegiko menuaz gozatzeko aukera izango da bertan. Bertaratu asmo duenak bidali email bat aurrez, sagardohop@gmail.com helbidera.



TXALAPARTA TXOKOA



TXTXTX

Txalaparta Txokora irteera.

Oreka TX-ko kideek Txalaparta Txokoa erakutsiko digute eta txalaparta jotzeko aukera izango dugu!!

9:30etan Mikel Laboa plazatik irtengo gara.
Bisita 11:00etan izango da.

Aurrez izena eman behar da: 607609379

EGUNA

Ekainaren 17a, igandea

ORDUA

11:00etan

TOKIA

Txokoaldeko Geltoki zaharrean.

📞 607 609 379 / 943 360 321

🌐 www.mintzalagun.blogspot.com

✉ usurbil@aek.eus

📌 [mintzalagunak gara](#)



Usurbilgo Udala

aek

Etumeta Euskalergia
www.usurbil.blogspot.com

noqua

praktikoa



Ekainaren 11n, Irrien Lagunen ikuskizuna frontoian

NOAUA! Kultur Elkar- tearen eskutik, Irrien Lagunak bueltan d- tozkigu, ekainaren 11n Usur- bila. Garai honetan, ikasturte amaiera aldera antolatzen du- gun Plis Plas Txalo Ta Jolas ekimenaren baitan, “Zatoz jolastera” haur eta gaztetxoei zuzenduriko ikuskizuna eskaini- ko digute datorren astelehenean, arratsaldeko 17:30ean hasita frontoian. “MarikaLanbre eta Largabista jolas egiteko gogoz daude. Irudimena dantzan ja- rriz eta publikoaren parte har- tzearekin jolasteko mila modu daudela ikusiko dugu. Bazatoz jolastera?”



MarikaLanbre eta Largabista jolas egiteko gogoz etorriko dira.

Bi hitzordu, Bihurri ludotekan

Maiatzaren 30erako iragarria zuten ‘Identitatearen ibilbidea: neska-mutil anitzak, sexualitate, transexualitatea’ saioa ekainaren 7ra atzeratu dute. Aurreikusitako ordu eta lekuan izango da, 17:00etan Bihurri ludotekan. Usurbilgo Sexu Aholkularitza Guneko ardura- dun Elena Jimenezek gidatuko du, hitzaldi-solasaldi irekia. Bi-

UDAJOLAS
Ekainaren 14an osteguna,
17:00etan Sutegiko
auditorioan, gurasoei
zuzenduriko bilera

hurri ludotekak merendola ba- tekin borobilduko du ikastur- tea ekainaren 22an 17:00etan. “Bihurri Ludotekan bazkideok opor hasiera merendola ba- tekin ospatuko dugu, zatoz!! Oparitxoak ere egongo dira!!”

Udajolaseko guraso bilera

4-12 urte arteko 192 haur eta gaztetxo izena emanda daude NOAUA! Kultur Elkar- teak eta Usurbilgo Udalak antolaturiko Udajolas ekimenerako. Uztai- laren 3tik 27ra, astelehenetik ostiralera, 09:30-13:30 artean eskainiko da Udajolas. Argibi- de gehiago, ekainaren 14rako 17:00etan Sutegiko audito- rioan antolatu dugun gurasoei zuzenduriko bileran eskainiko dira.

Parekidetasunean oinarritutako hezkidetza ikastaroa

“Aisialdiko testuinguruan sortzen diren egoera asko diskriminatzaileak izan dai- tezke. Nola identifikatu egoe- ra horiek eta zer egin sexismo egoerak ekiditeko?” galdera hauen inguruko lanketa egi- teko doako ikastaroa anto- latu du Usurbilgo Udalak ekainaren 26rako. Usurbilen haur eta gazteen aisialdian lan egiten duten begiraleei zuzendua egongo da. “Taile- rrean erabiliko den metodo- logia parte hartzailea eta di- namikoa izango da”, iragarri dute. Lau orduko saio bat edo bi izango dira, ordutegi honekin: 10:00-14:00 edota 16:00-20:00. Ikastarorako ize- na ekainaren 15a baino lehen eman beharko da. Informazio gehiago: 943 377 110 edo pa- rekidetasuna@usurbil.eus

Usurbilen, DYAren sentsibilizazio eguna

“Zure eskuek bizitza bat sal- ba dezakete” aldarripean, “BBS/CRP Eguna” antolatu du DYA Gipuzkoak ekain- aren 9rako Usurbilgo plazan, 17:00-20:00 artean.

Jaietako Bertsopaper Txapelketak abian

Usurbilgo festei begira, Bota Punttubak bertso- paper lehiaketak anto- latu ditu. Iaz bezala, bi. Bat tra- dizio luzeena duena; 16 urtetik gorakoentzat. Bestea, LH5 eta LH6 mailako ikasleei zuzendu- riko. Batera zein bestera lanak aurkezteko epea zabalik egon- go da ekainaren 21era arte. He- men dituzue xehetasunak:

LH 5 eta LH6koentzako

Bertsopaper Txapelketa:

■ Nori zuzendua: LH5 eta

LH6ko usurbildarrei edo Usur- bilen ikasten duten gaztetxoei.

■ Lanen ezaugarriak: bi ber- tsotako lanak izan behar dute. Gaietako bat aukeratu behar da:

-NOAUA!n herriko zuhaitz za- harrena botako dutela irakurri berri duzu.

-Herriko alkatea bazina zein aldaketa egingo zenituzke?

-Urrutiko lagun bat etorri zai- zu bisitan.

■ Sariak: txapeldunarentzat 50 euro Hurbilagoko dende-

tan xahutzeko eta oroigarria; txapeldun ordearentzat Hurbil- lagoko dendetan xahutzeko 40 euro eta oroigarria.

16 urtetik gorakoei zuzendutako Bertsopaper Txapelketa:

■ Nori zuzendua: 16 urtetik gorako usurbildarrei.

■ Lanen ezaugarriak: 8-10 bertso artekoak, inoiz argita- ratu gabeak.

■ Sariak: 200 euro eta oroiga- rria txapeldunarentzat, eta 150

euro txapeldunordearentzat.

Lanen aurkezpena

■ Epea: ekainaren 21a baino lehen udaletxean (Usurbilgo Udala, XLII. Bertsopaper Le- hiaketa. Joxe Martin Sagardia plaza. Usurbil 20170).

■ Lanak aurkezteko modua: izengoitiz aurkeztu lana. La- narekin batera, kartazal itxi batean parte hartzailearen datu pertsonalak aurkeztu.

■ Antolatzaileak: Bota Punttu- ba eta Usurbilgo Udala.



HAUNDITZEN ORAIN USURBILEN

Astearte eta ostegunetan
19:00 - 20:00
Etorri proba egitera 2 egunetan doan

informazio gehiago
www.kalefit.com

688.610.932

f i

noqua euskararen aterpe

Bazkideok egiten dugu posible

Astekaria, noqua.eus, Kulturaldia, Santo Tomas azoka, Inauteri Jaia, Udajolas...

**BAZKIDE EGIN
ZAITEZ!** →
eta opari eder
hau eskuratu!



Bazkideza: urtean 40 euro.
Informazio gehiago: 943 36 03 21
elkartea@noqua.eus



ELEKTRIZITATE-
ELEKTRONIKA

FABRIKAZIO
MEKANIKOA

ADMINISTRAZIOA

ENERGIA ETA URA,
PRODUKZIO ZERBITZU
ETA MANTEN.

Usurbilgo Lanbide Eskola

AURREMATRIKULAZIOA!

www.Ihusurbil.eus

EKAINAREN 4 TIK 15ERA (BIAK BARNE)



Go: eta Erri: Muziko
ZIKLOAK

Laneraiko Prestakuntza
IKASTAROAK

Berrituntza
PROIEKTUAK

...

**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

CIFP USURBIL LHII

50 urte eta gero, sasoi onean jarraitzen du Udarregi Ikastolak

Udarregi Ikastolak 50 urte bete ditu eta dagoeneko hasi dira ospakizun ofizialak. Aurreko asteburuan, HH eta LHko ikasleek jaialdia eskaini zuten Oiardo kiroldegian eta, horrelakoetan ohikoa denez, harmailak gainezka egon ziren. Ospakizunek jarraipena izango dute asteburu honetan.

Aurreko larunbateko ekitaldian, Udarregi Ikastolako lehengo eta egungo sustatzaileak batu ziren. Koldo Tellitu Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko lehendakariak ere bat egin zuen urteurren ospakizunarekin. Udarregi zoriontzear gain, “50 urte eta gero egiten ari zarten lana eskertu nahi dizuet”, adierazi zuen jendaurrean egin zituen adierazpenetan. Ekitaldi gehiago, asteburu honetan:



HH zein LH mailetako ikasleek eta Orbeldi Dantza Taldeko kideek girotu zuten aurreko larunbateko jaialdia.

Ekainak 8, ostirala

■ 17:00 Potxoenea ondoko Ola-noenea plazako anfiteatroan, “Tenderetea” antzezlan, Bapatean Zirko taldearen eskutik.

■ 18:00 Txokolate jana Askatasuna plazan. Antolatzailea:

Hitz Aho Guraso Elkarte.

■ 17:00-19:00 “Udarregi 50 urte” argazki erakusketa Sute-gin (azken eguna).

Ekainak 9, larunbata

■ 08:30 Esnadeia kaleetan zehar.

■ 10:00-12:00 Jokoak Ikastola inguruan.

■ 14:00 Herri bazkaria frontoian. Bazkalostean, Ttipikaren emanaldia.

Informazio gehiago: udarregi.eus
Antolatzailea: Udarregi Ikastola.



Kiroldegia txiki utzi zuten LH eta HHko ikasleen senideek. Argazki gehiago noaua.eus web orrialdean topatuko dituzue.

Denok ezinbestekoak, igandeko Gure Esku Dago-ren giza katean

Hortxe hortxe ziren, herritar batzuen faltan, urte hasieran finkatutako erronka betetzear. 1.000 lagun behar ziren gutxienik, igande honetarako Gure Esku Dago-ren giza katerako. “Asteburuko izen emate masiboaren ondoren, 989 herritar batu gara jada. Gertu ditugu helburutzat jarritako 1.000 izen emateak”, berri eman du sare sozialen bidez, Usurbilgo Gure Esku Dago lan taldeak.



Usurbilen bakarrik, 1.000 lagunek eman dute giza katerako izena.

Mila herritar izatera heltzeko gutxi falta den arren, jende orontzat egongo da lekua, Donostiatik Gasteizera luzatuko den 201,9 kilometroko luzeradun giza katean. Guztiok gara ezinbesteko mobilizazio honetan. “Izena eman edo ez, etorri Giza Katera! Ezinbestekoa zara!”, nabarmentzen dute.

Adi antolakuntzak helarazitako oharrei. Bai Aginagan eta Usurbilen, herritarrei igande goizeko 10:30ean bi guneotako frontoietara gerturatzeko deia egin zaie. Bertan antolaketaren argibideak jaso eta giza kateko eremura gerturatu be-

IGANDERAKO OHARRA
“Aginagan eta Usurbilen, herritarrei igande goizeko 10:30ean bi guneotako frontoietara gerturatzeko deia egin zaie”

harko da. Ikurrinak, aldarriak, pankartak, eramatera animatzen dituzte herritarrek. “Giza kate koloretsua osatu nahi dugu, aldarrikatzailea!”, adierazi dute.

Eguerdiaren izango da giza

katea, ordu erdi iraungo du. Segidan, Dema plazara joateko deia egin da, argazki erraldoia aterako da.

201,9 kilometroko luzera izango du giza kateak. Donostiako Kontxatik, Bilbotik eta ia 40 herritik igaro eta Gasteizko Legebiltzarreraino. Giza kate luze honetatik 9 kilometro Usurbilgo lurretatik igaroko dira.

Giza katea
Ekainak 10, igandea
Usurbilen

■ 10:30 Hitzordua: has deza-

gun eguna elkarrekin! Oharrak eta antolaketa Dema plazan.

■ 11:30 Prest! Bakoitza bere tokian! (Txara-Kaparotz artean).

■ 12:00/12:30 Giza katea!

■ 13:15 Argazki erraldoia Dema plazan.

Aginagan

■ 10:30 Hitzordua frontoian. “Has dezagun eguna elkarrekin! Oharrak eta antolaketa.

■ 11:30 Prest! Bakoitza bere tokian! (Ongi Etorri eta Galardi artean).

■ 12:00-12:30 Giza katea!

■ 13:15 Argazki erraldoia Dema plazan.

Arratsaldean zehar, festa giroa Donostian, Bilbon eta Gasteizen.

Ohar garrantzitsuak:

1. Ekarki zure ikurrina, aldarria, pankarta... Giza kate koloretsua osatu nahi dugu, aldarrikatzailea!

2. Kontuan izan eguraldia!

3. Arren, txukun mantendu ingurua; zaborrik ez lurrera!

Antolatzailea: Gure Esku Dago.

Buruntzaldeko herritarrak, eskuz esku

- 09. kilometroa: Lasarte-Oria.
- 10. kilometroa: Lasarte-Oria.
- 11. kilometroa: Zubieta-Usurbil.**
- 12. kilometroa: Usurbil.**
- 13. kilometroa: Andoain.
- 14. kilometroa: Andoain.
- 15. kilometroa: Urnieta-Aginaga.**
- 16. kilometroa: Astigarraga.
- 17. kilometroa: Hernani.

Informazio gehiago:

Facebook: GureEskuDagoUsurbil

Twitter: @GureEskuDagoU

gureeskudago.eus



Aginagakoek 15. kilometroa osatu beharko dute.

GU ere Ekainaren 10ean

gizakatera

joateko **bost arrazoi:**

1. Euskal Errepublika helburu, erabakitze eskubidearen aldarrikapena ezinbestekoa delako bat egingo dugu ekainaren 10eko giza katearekin

2. Erabakitzeari uko egin nahi ez diogulako, GURE ESKU DAGO!

3. Naziogintzan herritarrak bilduz, burujabetzaren ibilbidean zutik

4. 155aren aurrean herrien arteko elkartasuna adierazi nahi dugulako

5. Euskal herritarrok gure herriaren etorkizuna erabakitzeko orduan eragile zuzenak izan behar dugulako



sortu
USURBIL

Aire kalitatearen inguruko neurketaren inguruan EAJ-k esandakoak gezurtatu ditu udal gobernua

Erraustegia eraiki aurretik gure inguruan dagoen aire kalitatea neurtzeko hainbat kabina jarri ditu Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak inguruotan. Airearen kalitatea neurtzeko kabinen harira, aurreko astekarian EAJ-k ohar bidez “alkatearen jokabidea kritikatu, oztopatzailea dela esan, eta gardentasun falta leporatzeko” esandakoak gezurtatu ditu udal gobernu taldeak, NOAA!ra helarazi duen oharren bidez.

“EAJ-PNVk hobe luke Ekondakinen eta GHKren bozerra maile huts izatea baino, benetan aire-kalitatearen neurketa egokiaren alde egingo balu. Eskertuko genieke, bide batez, udal-jarduera gaineko galderak eta kezkek sortzen zaizkienean, zuzenean udal-gobernuko kideoi eta udal-teknikarierik helaraztea. Horretarako ere bagaude-eta. Orain arte bezala, ez dugu arazorik zalantzak argitzeko”, adierazi dute udal gobernutik.

Gai honen inguruko gertaeren kronologia zehaztu dute. Batetik, EHBildutik adierazi dutenez, kabinak jartzeko baimena eskatu zuen iazko irailean Ekondakin enpresak. Ordutik, gai honetan Udalak duen eskumena baliatuz, Ingurumen Sailetik bideratu da tramitazioa, eta Ingurumen Batzordean erabakitakoa errespetatu dela diote gobernu taldeak.

Iazko irailaren 11ko Ingurumen Batzordean jorratu zuten gaia, “Josune Urkola batzorde hartan zen” gogorarazten dute EHBildutik. Saio hartako aktan jaso dagoenez, bi kabina jartzeko eskaera jaso zuen Udalak Ekondakin enpresaren aldetik. “Baimena ematerakoan neurtu



Prensa-ohar bidez aditzera eman dutenez, “Udalak arrazoizko baldintzak eskatu ditu, airearen neurketa taxuzkoa egin dadin gutxien-gutxieneoak. Arduraz eta erantzukizunez jokatu du Udalak”.

KABINEN AFERA

Usurbilgo Ingurumen Batzordean erabakitakoa errespetatu dela diote gobernu taldeak

beharreko parametroak zehaztu eta datuen erabilera bermatuko da”, adostu zuten batzorde hartan.

Airearen taxuzko neurketa egitea, ezinbesteko baldintza

Abenduaren 1ean, dekretu bidez erantzun zitzaion baimen eskaera emango zuela Udalak, baldintza batzuk betetzeko. Batetik, estazioetako bat Zubietako larraldi gunearen atzean kokatu behar zuela eta bestea, Usurbilgo Estraperlo kale hasieran. Neurtu beharrekoa izan zen, finkatu zuen beste baldintza. “O3, BTEX, Nox, PM10, PM2,5 SO2 eta kontrol meteorologikoko parametroak neurtuko dituzte (airearen norabidea barne)”. Eta neur-

tzen ari ziren parametroetara sarbidea izatea ere exijitu zuen Udalak. Honen berri udalbatza osatzen duten udal ordezkari guztiei jakinarazi zitzaiera adierazi dute gobernu taldeak. “Ikusten denez, Udalak ez ditu baldintza arbitrario edo zentzugabeak jarri. Oso bestela, arrazoizko baldintzak eskatu ditu, airearen neurketa taxuzkoa egin dadin gutxien-gutxieneoak. Arduraz eta erantzukizunez jokatu du Udalak”.

“Zergatik ez dituzte bete nahi Udalak jarritako arrazoizko baldintzak?”

Parametro gehigarriok 2017ko apirilaren 8rako Eusko Jaurlaritzaren ebazpenak ez zituela jasotzen erantzun zion Ekondakinek Udalari iazko abenduan eta horiek beharrezkoak izanez gero, Jaurlaritzarekin harremanetan jartzea eskatzen zion Udalari haren baimena lortzeko, “izan ere, guk indarrean dagoen ebazpena baino ez dugu zehazki bete”.

Maiatzaren 4an kabina instalatzeko eskaera biltzen duen jakinarazpena jaso zuen alkateak. Testuinguru honetan “beraz, sustatzaileek Udalaren esku utzi nahi izan dute Eusko Jaurlaritzarekin egin beharreko gestioa. Ekondakinek (eta GHKk) baimena eskatu, eta Udalari al dagokio Jaurlaritzarekikoak lantzea? Edozein espedienteetan, eskatzailearen ardura da eskaeran ezarritako baldintzak dagokionarekin negoziatzea. Gainera, bestela ere, ez al da ebidentea guk baino irismen eta eragin handiagoa dutela Eusko Jaurlaritzan, eta, nahi izanez gero, askoz eraginkorragoak izango direla? Hala ere, jarrera horrek beste galdera batzuk ekartzen dizkigu: Zergatik ez dituzte bete nahi Udalak jarritako arrazoizko baldintzak? Zeren beldur dira? Eta horren ondorioz: gutxieneko baldintza horiek bete ezean, ez al da itxurakeria hutsa, eta beren burua zuritu nahi, atzetik darabilten asmoa?”.

Uztailaren 12an eta 13an, Jakín Jardunaldiak Usurbilen

1968ko udaberrian mundu berri baten aldarria egin zen Parisen, Berlinen, Pragan, Mexikon... Baita Euskal Herrian ere. Mende erdi pasatu da geroztik eta aukera aparta da egungo aldarri eta gizarte auzi eta eraldaketei erreparatzeko. Horretarako, bederatziditu eta aritu bilduko ditu 'Utopia 68/18. Iruditeria berrien bila' Jakín Jardunaldiak. Usurbilen egingo da, uztailaren 12 eta 13an, "gogoeta kolektiboaren bitartez, nora goazen edo nora joan nahiko genukeen begitantzeko".

UEUren, Usurbilgo Udala- ren eta Jakinen elkarlanaren emaitza da udako ikastaroa. "Iaz Jakín eta Usurbilgo Udala- rekin abiatu genuen bideak fruitu ederrak eman ditu", azaldu zuen Iñaki Alegria UEUko zuzendariak. Eta bide horretan jarraitzeko borondatea berretsi zuen Xabier Agirre Usurbilgo alkateak: "Usurbil hitzaren, gogoetaren eta sola-



UEU, Jakín eta Usurbilgo Udala- ren elkarlanaren emaitza dira jardunaldiak. 'Utopia 68/18. Iruditeria berrien bila' izenburupean egingo dira uztailean.

saldi pausatua- ren parada iza- tea nahi dugu".

Utopia berriak aztergai

Utopia hitza izango da jardunaldiaren ardatza. Izan ere, "68ko udaberrian utopiaren zentzua berritu egin zen", Lorea Agirre Jakineko zuzendariaren ustez. "Gaur egun eta hemen utopia zeri deitzen diogun aztertzeko, gizartea eraldatzeko borroka eremuak non dauden zehazteko, eta zer

iruditeria kolektibo eraiki eta partekatzen ari garen hausnar- tzeko, nola berritu dezakegun pentsatzeko" balioko du Jakín Jardunaldiak.

Izen ematea, ueu.eus orrian

UEUren web orrian eman behar da izena, ueu.eus helbi- dean. Bestelako ekintza osa- garriak ere egingo dira Jakín Jardunaldietan. Datorren as- tean emango ditugu xehetasun gehiago.

Ekainaren 11tik 22ra, sorosle eta lehen sorospen ikastaroa

DYA Gipuzkoak Usurbilen duen egoitzan eskainiko da ikastaroa, euskaraz.

Ikastaroaren iraupena bi astekoa izango da: ekainaren 11tik 22ra arte, lanegunetan, 18:00etatik 21:00etara. "Bi- hotz eta birika susperketa, zauriak, hausturak, erredu- rak... Ezagupen oso arrun- tak baina laguntza asko eman dezaketena iraka- tsiko dira", DYAtik aditzera eman dutenez.

Prezioa, 110 euro

Ikastaro amaierako frogak gaintzen dituenak, DYA Gipuzkoak eskaintzen duen Sorosle Titulua eskuratuko du. Matrikularen prezioa 110 eurokoa da, ikastarorako txostena barne.

Izen ematea

Izena emateko edo infor- mazio gehiago jasotzeko, deitu 943464622 telefono zenbakira.

Bota Punttubako gaztetxo- en erakustaldia



Ikasturte amaiera heltzen ari da. Urtean zehar eginiko lanke- tak plazaratzeko ordua heldua da. Esaterako, Bota Punttuba bertso eskolakoei. Aurten abia- tu duten LH-koei zuzenduriko

eskaintzearen baitan, 2. mai- lako taldeak "Laberintoaren bila" bertso- antzerkia eska- ni zieten guraso eta lagunei, joan den astean Sutegin. Irudia: Bota Punttuba.

Joseba Larratxe, JUUL kanpaina saritua



Ikastolen Elkar- teak antolatu- ta, JUUL sariak banatu zituz- ten joan den astean Altsasun. JUUL kanpaina- ren helburua, ikastoletako haurren artean irakurzaletasuna sustatzea da.

Horretara hainbat jarduera bideratzen dituzte, "haur eta gazte guztiek, liburu eta ilus- tratzaile bat hautatzen dutela- rik". Hautatuen artean Joseba Larratxe izan da.

Xuban Errazkin laugarren izan da Txekiako Priessnitz Spa itzulian

U surbilgo txirrindulariak itzuli bikaina osatu du. Txekiako Priessnitz Spa sari nagusiko bi etapatan bigarren postuan iritsi zen helmugara. Eta sailkapen nagusian laugarren izan zen, podium-etik oso denbora gutxira.

Xuban Errazkin Portugalgo Vito-Feirense-BlackJack talde profesionalen ari da aurten. Aurreko asteburuan, Txekian izan zen lehia: "Ametsetako itzulia atera zait", halaxe aitortu zuen Euskadi Irratian. Sasoi onean da azken aldia. Madrillgo lasterketa bosgarren amaitu zuen eta Txekian laugarren geratu da. "Progresio horrekin oso pozik nago eta oso motibatuta". Atsedean hartuko du orain eta abuztuan Etorkizuneko Tourra osatuko du.



Abuztuaren amaieran Etorkizuneko Tourrean hartuko du parte.

Eskola kiroleko proiektu berriaren aurkezpena

Udarregi Ikastola, NOAUA! K.E. eta Usurbilgo Udala kide izango dituen Eskola Kiroleko

proiektu eraberritua abiatuko da irailean. Aurrez, gurasoei aurkeztu nahi zaie, datorren asteartean, ekainaren 12an, arratsaldeko 17:30ean Sutegin deitu duten batzarrean.

Haimar Zubeldiari Mirotsa Saria eman diote



Orio Arraunketa Elkarteak asteburuan antolatutako 6. Garagardo Azokaren irekiera ekitaldian banatu zituzten Mirotsa Saria. Bi txirrindulari omendu dituzte aurten: Leire Olaberria eta Haimar Zubeldia usurbildarra. Zorionak!

Unai Sagarzazu triatloilaria, Gipuzkoako txapeldun



Aurreko asteburuan, V. Pasai Donibane Triatloia jokatu zen. Sprint modalitatean, hirugarren amaitu zuen baina bere adinekoen artean, 23 urte azpikoen mailan, Unai izan zen lehena. Zorionak! Argazkia: Baxurde Txiki Triatloi Taldea.

Aitor Arangurenen debuteko afaria, hilaren 23an Aginaga sagardotegian

Asegarce enpresak Aitor Aranguren pilotari aginagarra fitxatu du. Ekainaren 23an debutatuko du Tolosako Beotibarren 18:00etan. Aranguren animatzera joateko autobus zerbitzua antolatu dute, 6 euroren truke. Partidarako sarrerak ere aurrez eskuratzeko aukera dago, 15 eurotan. Bueltan, afaria antolatu dute Aginaga Sagardotegian: entsalada mistoa, bakailao tortila, txuleta, postrea eta kafea. Prezioa, 20 euro.

Aurrez eman behar da izena

Argibide gehiagorako edo izen emateko:

- 695 723 192 (Aitziber).
- 680 347 768 (Leire),
- Aginagako Arrate, Aitzaga.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Otar-Goxo
El ikagaiak
Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

ARRANDEGIA
PELLO
ORDUTEGI BERRIA:
ASTELEHENETIK-LARUNBATERA
9:00-13:30
ASTEARTE-ASTEAZKEN-OSTEGUNA
17:00-19:30
PUNTAPAX 7, 943 54 37 94

ETXEBIZITZA

Salgai

126m²ko pisua salgai Aginagan, 65m²ko ganbararekin. Oso eguzkitsua, dena kanpoaldera. Berritu beharra. Prezioa 186.000. 659257889 edo 680742504.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro² lokala salgai Munalurran. Etxea bihurtzeko baldintzak betetzen ditu. Prezioa: 68.000 euro. 943 916 182 (Jon).

90 m2 pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11 m2- terraza, 8 m2 trastelekua eta bertan 33 m2-ko garajea erosteko aukera. 606 877 856

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kafetakua. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m² eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Pisu bat salgai. 90 m². 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642. Prezio berria.

Gure Borda salgai: 5.600 m², borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 m² pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m² (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berritua. 359.000 euro. 679002101.

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60

2 gela, komuna, sukaldea eta sala

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrek doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrek bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Alokairuan

Etxebizitza bat alokatzen da Bizkarre kalean. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, jangela-egongela handia, trastelekua, igogailuarekin. Tel. 650 825 663.

Pisu bat alokatzen da Santuenean. Tel. 679 366 415

Abendurako pisua alokairuan hartu nahi dut, Aginagan, Usurbilen edo Orion. 690 367 952

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabilta, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Santuenean pisu bat alokatzen da. 679 366 415.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negoio-lokala bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatz kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m2-ko lokala/garaje bat Ateagalden. Autoak sartzeko ateararekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

34m²ko lokala komertzial bat alokatzen da Errekatz 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

120 metro² lokala bat salgai. Alpeurroburu 3an. 699 306 158

Ganbara, atiko edo trasteleku bat erosi nuke Usurbil edo inguruan. 630 490 844.

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarrik ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindro. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Garaje itxia salgai, 38 m karratuko, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m², Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Zerbitzari lanak egiteko, neska edo emakume euskaldun bat behar da. Tel. 690 106 070

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Lan bila nabil. Garbiketari edo per-

tsona helduak zaintzen. Etxean, ospitalean, gauetan, externa bezala, orduka edo asteburutan. 671763558

Lan bila nabil interna edo externa bezala. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Urtebeteko esperientzia. Arduratsua, erreferentzia onekin. 666 295 450

Garbiketa egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko. Esperientzia duen neska, arduratsua. Berehala lanean hasiko nintzake. 637 106 649

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko. Ospitalean, etxean, gauetan. Garbiketa orokorrean ere bai. 671 763 558

Pertsona helduak zainduko nituzke, asteburu, jai egunetan eta gauean, baita erietxean ere. 606 661 048 / 943 404 015.

Lan bila nabil etxeak garbitzen edo umeak zaintzen, ekaina eta uztaila, goizetan eta Usurbilen. 608201745.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna, externa edo orduka. 632 541 872

Emakume bat naiz, eta lan bila nabil. Interna, externa, orduka. Helduak edo umeak zaintzen. 676 188 411

Neska bat naiz, eta lan bila nabil. Orduka lan egingo nuke. Helduak edo umeak zaintzen. 619 355 819

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, ospitalean, baserrian. 632090146

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, ospitalean, baserrian. 632793747

Lan bila nabil. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta erreferentziekin. 662 910 181

Interna bezala lan egingo nuke. Esperientziarekin. Paperak eguneratuta. Tel 682 723 520

Emakume bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Geria-



Zorionak Jare!

Muxu erraldoi bat etxeko denon partetik!



Zorionak Udane!

Ekainaren 8an 7 urte egingo dituzu. Muxu goxo eta erraldoi bat Anje eta etxeko guztien partez.

Heriotzak

Jose Miguel Borda Menendez

Ekainaren 4an hil zen, 43 urterekin



triako eta lehen laguntzako eza-gutzak ditut. Esperientzia etxeko lanetan eta antolamenduan. Erreferentziak ditut. 612 495 429

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Goizez edo arratsalde. Esperientzia daukat. 690 336 444.

Lan bila nabil. Orduka eta arratsalde. 663 776 93

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, gauetan, asteburutan, externa bezala edo garbiketara lanetan. 671 763 558.

Interna moduan lan egin nahi dut adinekoak zaintzen. 25 urteko lan esperientzia dut. 633 73 64 26

Lan bila nabil, etxeak garbitzen, etxeko lanak egiten edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia ere erreferentziak. Tel. 632 576 258

Mutil arduratsua baserriko lanetarako eskaintzen da. 661118892.

18 urteko neska euskaldun herriar esperientziaduna naiz. Aste osoan zehar arratsalden umeak zainduko nituzke. 688817429.

Lan bila nabil. Umeak zaintzen, garbiketara lanak egiten, orduka, interna bezala. Tel. 642 238 949

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. Tel. 663 776 223.

Usurbilgo bizilagun bat naiz, eta orduka garbiketara egiten lan egingo nuke. Tel. 674 570 534

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. 663 776 223. Maribel

Lan bila nabil edo gabilta. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketara lanak egiten; bulegoak, garajeak, portalak, poligonoak, edo enpresak. Sukaldean ere moldatzen naiz. Kotxea dut, eta esperientzia. 688 654 698.

Lan bila interna, esterna moduan, haur nahiz helduen zaintzan aritzeko. Esperientziaduna. 677 624 971.

Lan bila nabil. Interna, externa,

aste burutan, gauak pasatzen... lan egingo nuke. Paperak eguneratuta eta esperientziarekin. 645 067 560

Emakumea eskaintzen da heldu nahiz haurrak zaintzeko. Interna edo esterna moduan. 697 221 372.

Emakumea lan bila haur, helduen zaintzan, etxeko lanak egiteko interna edo esterna moduan. Esperientziaduna. 617 998 582.

Garbiketara lanak, helduen zaintza lanak egiteko prest interna moduan, egunez edo orduka. 671 763 558

Mutil gazte bat naiz eta lan egingo nuke. Baserrian, animaliak zaintzen, pertsona helduak zaintzen, harraskan, arraina garbitzen... 688 802 851

Lan bila nabil. Interna, externa,

orduka edo gauetan. Garbiketara lanak egiten, pertsona helduak zaintzen... 634 278 198

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da oportunitate umeak zaintzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, klase partikularrik emateko prest egongo litzateke: euskeran, gaztelan, ingelesean eta frantsean goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketara. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta astelehentik ostiralera. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka, gauetan... edozein modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketara lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketara lan egiteko. Interna moduan, orduka edo gauetz. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketara, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro2. 699 306 158

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Geriatría laguntzaile bezala, edo

sukaldari bezala (euskal sukaldearen ezagutza). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenaretzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketara lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiketara, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldean lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketara lanetan. Berehala lanean hasteko. 606267824

BESTELAKOAK

Erluju bat galdu dut Santuenean. GPSa eta pultsometroarena. Souto Gramin markakoa, beltza. Aurkitu baduzu deitu: 662 039 829.

Gerezi koloreko logela bat salgai. Egoera onean. Ohea, idazmahai, armairua eta apal bat. 400 euro. 600 320 967

Udarregi Ikastolan klase partikularrik emateko jende bila gabilta. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! 943 36 12 16

Errege sagar ekologikoa eta etxeko membrilloa salgai. Interesatz gero: 656742048 (Miren) edo 656757850 (Arantxa).

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilia) eta enorkadara salgai. 943363201

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehentik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epategia.....	943 372 336	Amenabar botika (Iehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arretoa ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 07 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Ostirala 08 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Larunbata 09 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Igandea 10 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Astelehena 11 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Asteartea 12 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteazkena 13 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Ekainak 07 - Ekainak 17

Osteguna 14 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 15 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Larunbata 16 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 17 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani
943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda ekaina

08 ostirala

- "Harria hitz" bisita gidatua 10:00etan frontoitik. Aurrez eman behar da izena. 688 818 017.
- Ikastolak 50 urte ekitaldiak. Ikus 14. or.
- Euskaraldia plazaratzeko herri agerraldia 19:30ean Mikel Laboa plazan.

09 larunbata

- Ikastolak 50 urte: jaialdia Ikus 14. or.
- DYA-ren sentsibilizazio gunea. 17:00-20:00 frontoi eta plazan iguruan.
- SagardoHop festa Iruin Sagardotegian, 19:00etan.

10 igandea

- Giza katea. Gure Esku Dago taldeak deituta. Informazio gehiago 15. orrialdean.

Ostiral honetan, afari maridajea Andatz-pen

Ostiralerako, ekainaren 8rako antolatu du Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak, jaki eta edari jakin bana dastatzeko aukera eskainiko duen ekimena 20:30ean Andatz-pe elkartearen. "Otordu bat da, baina berezitasun batekin. Produktuen ezkontza komentatua da: jaki bat edari batekin. Gure kasuan, jakia sagardoarekin. Gure funtsa sagardoa da, bere deribatu guztiekin. Afari honetan plater bakoitza sagardo mota desberdinekin lotuko dugu".



"Usurbil eta Zubietako sagardotegietako sagardoa izango dugu gozagarri plater bakoitzarekin". Aurrez eman daiteke izena 943 33 68 11 telefonora deituz.

Afari gidatua izango da, gidari bat izango du. "Berak banan-banan azalduko ditu jakiak eta horiekin zerbitzatuko diren edariak". 40 lagunentzako lekua egongo da otorduan. Aurrez eman ahalko da

izena, Bordatxo tabernan, Alkartasuna Kooperatibian eta Andatz-pe Elkartearen bertan. Prezioa, 30 euro. Argibide gehiago: info@sagardoa.eus / 943 33 68 11 (Gipuzkoako Sagardogileen Elkarte).

Euskaraldia plazaratzeko herri agerraldia

Euskal Herri mailan deitu den Euskaraldia ekimenarekin bat egin du herri honek. Talde eragile bat ere osatu da, egitasmo hau herri mailan bideratzeko. Potxoenean biltzen dira tarteka. Ekimenari bultzada emateko, plazara aterako dute orain Euskaraldia. Herri agerraldia

iragarri dute ekainaren 8rako 19:30ean Mikel Laboa plazan. Hitzordu honen bidez, Euskaraldia sustatu eta ekimenari babesa adierazteko aukera izango da. Agerraldi ireki honetan parte hartzeko deia egiten zaie herritar nahiz eragile orori.

Datozenak

Ekainaren 16an, herri omenaldia Joxean Artzeri

Ekainaren 16an egingo zaio herri omenaldia urte hasieran zendu zen Joxan Artze sortzaile usurbildarrari. Martxoan osatu zen batzorde bat ari da antolatzen omenaldi eguna. Poesia, txalaparta, musika ardatz izango ditu.

Ekainaren 17an, Txokoaldeko Txalaparta Txokoa ezagutzeko aukera

Mintzalagun egitasmotik antolaturiko irteera, herritar ororentzat irekia. "Oreka TX-ko kideek Txalaparta Txokoa erakutsiko digute eta txalaparta jotzeko aukera izango dugu!".

■ Biltzeko hitzordua: 09:30ean Mikel Laboa plazatik irteera.

■ Bisita: 11:00etan Txokoaldeko Txalaparta Txokoa (Txokoaldeko geltoki zaharra).

■ Izen ematea, aurrez: 607 609 379 / 943 360 321 / usurbil@aek.eus

■ Antolatzaileak: Etumeta AEK euskaltegia, NOAUA! K.E. eta Usurbilgo Udala.



EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

943 36 91 39

www.artzabaljatetxea.eus

ANTXETA
taberna-jatetxea

eguneko menuak
ogitartekoak
plater konbinatuak

Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44



bazkariak EGUNERO
afariak, asteazkenetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

IRRIEN  LAGUNAK



IRRIAK PLAZAN!



Ekainak 11, astelehena
17:30ean frontoian

noqua





Urbilargia

EKAINAK 16 19:00etatik-24:00etara

AHAZTUKO EZ DUZUN GAU ZURIAZ
GOZA EZAZU URBILEN.

Datorren **ekainaren 16a** urtearen gau motzenetako bat izango da eta hunkigarrietakoa ere bai.

Urbil ilargiaren argitan goza ezazu jai berezi bat antolatu dugu. **Itxaroten zaitugu!**

URBILARGIA ZOZKETA

25 ZINEMA-SARRERA
BIKOITZ



2018/12/31 baino lehen Cinesa Urbil-en erabiltzeko.
Bakarrik ekainaren 16ean parte hartu ahal izango
duzu Bezeroenganako Arreta Puntuan. **ZORTE ON!**

PROGRAMAZIOA

MAGIA	19.00	"EL MAGO OLIVER"
JAZZ	20.30	"ORGANIZING"
MIKRO- ANTZERKIA "La Farándula"	20.30	"TXALOKA ERO MODUAN" Behobia/Donostia (EUSK)
	21.00	"CON PALMAS Y A LO LOCO" Behobia/Donostia (CAST)
	21.30	"PISU EZ-PARTEKATUA" (EUSK)
	22.00	"PISO IN-COMPARTIDO" (CAST)
SWING "Donosti Lindy Hop"	22.30	IKASTARO IREKIA
	23.20	KOREOGRAFIA